1.El devengo de este precio público se producirá al formalizar o renovar la matrícula.

Antes de finalizar el curso anterior, se abrirá el periodo de matriculación para el curso siguiente.

2.La notificación de no continuidad debe realizarse antes de la finalización del curso anterior, es decir, antes del 20 de junio. De no



TOLOSA
UDALA

Hala egiten ez badu, Udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

3. ORDAINKETA.

Matrikularen zenbateko honela ordainduko da:

- a) Aurreko urteetako ikasleak, %60 matrikula egiteko unean, edo berritze automatikoarekin batera, uztailean. (1. kuota)

Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak, aldiz, azaroaren 1tik 15era.

- b) %20 abenduaren 1tik 15era (2. kuota)
c) %20 otsailaren 15tik 28ra (3. kuota)

Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoa, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko.

Ikasleak ordainteketan bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, musika ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela adieraziz.
- Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskutasuna ikusita.
- Amatasun edo aitatasun baja.
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein personalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

Ikasleak ordainteketan bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulpena ikasturtea hasi aurretik eskatu beharko da.
- 2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera, bakoitzaren ordaintzeko aurreko hilabetean egin behar da, hau da: urriaren 15a eta urtarrilaren 15a

Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klasebat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.

hacerlo así, el Ayuntamiento expedirá al alumno la exacción de la matrícula correspondiente.

3. PAGO.

El pago del importe completo de la matrícula se realizará en los siguientes plazos:

- a) Alumnos de cursos anteriores, el 60 %, al matricularse o al momento de la renovación automática, en julio (1ª cuota).

Nuevos alumnos/as o los/las que están esperando vacantes, en cambio, del 1 a 15 de noviembre.

- b) El 20 %, entre el 1a 15 de diciembre (2ª cuota)
c) El 20 %, entre el 15 y 28 de febrero (3ª cuota)

Se puede solicitar la anulación de la matrícula por los motivos siguientes, pero, sea cual sea el motivo, no se devolverá el 20 % del precio público.

Motivos para que el alumno suspenda el pago de la matrícula o solicite su devolución:

- Enfermedad, con certificado médico que indique incapacidad grave para acudir a la escuela.
- Embarazo, con el informe médico sobre valoración del riesgo.
- Baja por maternidad o paternidad
- Traslados o modificaciones obligadas de los estudios reglados u homologados, siempre que se certifiquen por medio de documentos.
- Situaciones extraordinarias en el ámbito laboral (traslados, despidos...) o personal, siempre que se certifiquen por medio de documentos.

Plazos para la suspensión de pagos o la solicitud de la devolución del importe de la matrícula:

- La devolución de la primera cuota deberá solicitarse antes del comienzo del curso.
- La solicitud de no abonar las cuotas 2ª y 3ª, el mes anterior al plazo de pago de cada una de ellas, o sea, el 15 de octubre y el 15 de enero.

Excepcionalmente, las solicitudes de baja hechas fuera de plazo se tendrán en cuenta si se certifica que la persona solicitante no ha asistido ni a una sola clase.



TOLOSA
UDALA

Matrikularen lehen ordainketa osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Udal Musika Eskolari egotz dakiokenean.

Arazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Udal Musika Eskolako Zuzendaritzak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebaztzeko ditu.

4. PREZIO JEITSIERA

4.1 Familia ugariei eta familia gurasobakarrei %50eko murriztuko zaie prezio publikoa.

Familia gurasobakarren kasuan, subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du prezio jeitsiera.

Familia ugariaren murrizketaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete beharditu:

- Matrikulatzen den ikasturtearen matrikula egiteko epealdian familia ugariaren izaera edukitzea.

- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago prezioaren murrizketa horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketen berri ematera, eta aldaketa horiek nolanhari ere, gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango dute eragina.

Administrazioak beretzat gordetzen du prezio jeitsiera onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatzeko eskubidea, eta subjektu pasiboak prezio jeitsiera eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkez daitezkeen eskatzekoa ere bai.

4.2 Eskaera egiten dutenei, Tolosako udalarekin zorrak ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru- sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %80 murriztuko zaie prezio publikoa.

4.3. Eskaera egiten dutenei, bizikidetzaren ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduerara bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jeitsiera bizikidetzaren unitateko kideen dirusarreraren arabera kalkulatu da:

El primer pago de la matrícula solo se devolverá cuando la causa de anulación de la matrícula sea atribuible a la Escuela de Música.

Las solicitudes realizadas por dichos motivos serán examinadas por la Dirección de la Escuela de Música Municipal, que emitirá el correspondiente informe proponiendo admitir o denegar la solicitada devolución de cuotas o suspensión del pago, y será la Alcaldía quien las resuelva.

4. REDUCCIÓN DEL PRECIO PÚBLICO

4.1. Tendrán una reducción del 50 % del precio público las familias numerosas y las familias monoparentales.

Las familias monoparentales tendrán que solicitar anualmente la reducción del precio público.

El disfrute de la reducción del precio público de las familias numerosas requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- Ostentar la condición de familia numerosa en el plazo de matriculación del curso en el que se matricula.

- Para la simplificación de los trámites no será necesaria la renovación anual de las solicitudes.

No obstante, el sujeto pasivo está obligado a comunicar las variaciones que se produzcan en ellas condiciones y requisitos de esta reducción y que, en todo caso, surtirán efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de la reducción y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la reducción.

4.2. Tendrán una reducción del 80 % las personas que no tengan ninguna deuda con el Ayuntamiento de Tolosa y reúnan los requisitos económicos para las prestaciones ofrecidas por el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos.

4.3. Tendrán una reducción, aquellas personas que soliciten y que la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.

Una vez cumplidos los requisitos, la rebaja del precio público se calculará en función del ingreso de los y las miembros de la unidad convivencial:



TOLOSAKO
UDALA

Número de miembros de la unidad convivencial	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	18.621 €-21.280 €
1-2	% 80	% 60	% 50	% 0
3	% 90	% 70	% 60	% 25
4 o más	% 95	% 90	% 90	% 60

Atal honetako prezio publikoen jeitsiera lortzeko, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

4.1., 4.2 eta 4.3 ataletako jeitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentai handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2023eko urriaren 26an.

Eranskin honetako aplikazio arauak Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2023ko urriaren 26an.

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial.

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 4.1, 4.2 y 4.3, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a la solicitante.

Las tarifas de este Anexo fueron aprobadas por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

Las normas de aplicación de este anexo, fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

Tolosan, 2024ko irailaren 23an

ALKATEA

KONTU-HARTZAILEA

IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA

Urtea : 2024-2025

3.1.7

ERANSKINA - ANEXO

3.1.7 KULTUR TAILERRAK

		2024-2025
Pintura ikastaroa.14 urtez gora-koak	Curso de pintura. Mayores de 14 años	213,65
Eskulanak. 6-14 urte bitartekoak	Manualidades. De 6 a 14 años	157,20
Zeramika ikastaroa,urteko	Curso de cerámica, anual	213,65
Antzerki ikasturtea	Curso de teatro, anual	190,40
Argazkigintza (100 ordu)	Fotografía (100 horas)	256,80
Argazkigintza (80 ordu)	Fotografía (80 horas)	205,45
Argazkigintza (60 ordu)	Fotografía (60 horas)	154,10
Balleta	Ballet	162,70
Baleta aurreratua	Ballet avanzado	222,50
Balleta puntak	Ballet puntas	60,90
Dantza garaikidea	Baile contemporaneo	222,50
Ehoziriak eta patchwork	Encaje de bolillos y patchwork	213,65
Ez ohiko ikastaroak	Cursos extraordinarios	4€/ orduko

APLIKAZIO ARAUAK

1.- Tarifaturako gaietarako buruzko espezializazio ikastaroak antolatzen ahalmena izango du udalak. Ikastaro horien prezioa kostuaren araberakoa izango da. Era berean, bestelako ikastaroak antolatzea Udalaren eskumena da. Horrelakoetan, dagozkien kostuen arabera prezio publikoak finkatuko ditu Udalak.

NORMAS DE APLICACIÓN

1.- El Ayuntamiento tiene la facultad de organizar cursos de especialización sobre las materias tarifadas, cuyo precio será en función de su coste. Así mismo, es competencia del Ayuntamiento organizar otros cursos diferentes, en los que el Ayuntamiento fijará los precios públicos en función de los costes correspondientes.



TOLOSA
UDALA

3.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikula egiteko nahitaezkoa da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.

4.- Materialaren ordainketa zuzendaritzak berak erabakiko du nola egin.

5.- Matrikulazio aukerak eta zenbatekoa ordaintzeko moduak:

5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

- Tarifa osoa matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin. Ordainketa epemuga: abenduaren 11a.
- Tarifa osoa bi zatitan:
 - 1. kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50. Ordainketa epemuga: azaroaren 15tik 30era.
 - 2. kuota: %50. Ordainketa epemuga: otsailaren 15tik 28ra.

5.2.- Urtarriletik ekainera: Tarifa osoaren %75. Ordainketa epemuga: otsailaren 15tik 28ra.

5.3.- Martxotik ekainera: Tarifa osoaren %50. Ordainketa epemuga: maiatzaren 15tik 30era..

6.- Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoa, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, eskolara joateko ezintasun larria duela adieraziz.
- Haurdunaldia, medikuaren txostenak erabateko atsedena hartu behar duela baldin bada.
- Amatasuna.
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kalera-tzeak...), beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klase bat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epea: urtarrilak 15.

3.- Este precio público se devenga al realizar la matrícula. Para matricularse, será imprescindible tener abonadas todas las cuotas de cursos anteriores.

4.- La dirección determinará la forma de pago del material.

5.- Tipos de matrícula y formas de pago:

5.1.- Curso completo (de octubre a junio)

- La tarifa total en el momento de matricularse o de renovar automáticamente la matrícula. Plazo de pago: 11 de diciembre.
- La tarifa total en dos plazos.
 - La 1ª cuota al formalizar la matrícula o con la renovación automática: 50 %. Plazo de pago: de 15 a 30 de noviembre.
 - La 2ª cuota: 50 %. Plazo de pago: de 15 a 28 de febrero.

5.2.- De enero a junio: 75 % de la tarifa total. Plazo de pago: de 15 a 28 de febrero.

5.3.- De marzo a junio: 50 % de la tarifa total. Plazo de pago: 15 a 30 de mayo.

6.- Se puede solicitar la anulación de la matrícula por los motivos siguientes, pero, sea cual sea el motivo, no se devolverá el 20 % del precio público.

Motivos para que el alumno suspenda el pago de la matrícula o solicite su devolución:

- Enfermedad, con certificado médico que indique incapacidad grave para acudir a la escuela.
- Embarazo, si informe médico prescribe reposo total.
- Maternidad.
- Traslados o modificaciones obligadas de los estudios regulados u homologados, siempre que se certifiquen por medio de documentos.
- Situaciones extraordinarias en el ámbito laboral (traslados, despidos...), siempre que se certifiquen por medio de documentos.
- Excepcionalmente, las solicitudes de baja hechas fuera de plazo se tendrán en cuenta si se certifica que la persona solicitante no ha asistido ni a una sola clase.

Plazo para la suspensión de pagos o la solicitud de la devolución del importe de la matrícula: 15 de enero.



TOLOSAKO
UDALA

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Kultura Zerbitzuko zuzendariak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebaztiko ditu.

Matrikularen prezio osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoiak Tolosako Udalari egotz dakiokenean.

7.-PREZIO JEITSIERA

7.1. Familia ugariak eta guraso bakarrek %50eko jeitsiera izango dute.

Familia gurasobakarren kasuan, subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du prezio jeitsiera.

Familia ugariaren murrizketaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Matrikulatzen den ikasturtearen matrikula egiteko epealdian familia ugariaren izaera edukitzea.

- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago prezio publikoaren murrizketa horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketen berri ematera, eta aldaketa horiek nolahi ere, gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango dute eragina.

Administrazioak beretzat gordetzen du prezio publikoaren jeitsiera onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatze eskubidea, eta subjektu pasiboak prezio publikoaren jeitsier eskuratzeko eskubidea duela egiaztatze behar diren agiri guztiak aurkez daitezkeen eskatzekoa ere bai.

7.2. Eskaera egiten dutenei, Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru- sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %80 murriztuko zaie prezio publikoa.

7.3. Eskaera egiten dutenei, bizikidetzaren unitatearen ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduerara bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

Las solicitudes realizadas por dichos motivos serán examinadas por el director del Servicio de Cultura, que emitirá el correspondiente informe proponiendo admitir o denegar la solicitada devolución de cuotas o suspensión del pago, y será la Alcaldía quien las resuelva.

El precio total de la matrícula solo se devolverá cuando la anulación de la matrícula sea atribuible al Ayuntamiento de Tolosa.

7.-REDUCCIÓN DE PRECIO

7.1. Tendrán una reducción del 50 % del precio público las familias numerosas y las familias monoparentales.

Las familias monoparentales tendrán que solicitar anualmente la reducción del precio público.

El disfrute de la reducción del precio público de las familias numerosas requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- Ostentar la condición de familia numerosa en el plazo de matriculación del curso en el que se matricula.

- Para la simplificación de los trámites no será necesaria la renovación anual de las solicitudes.

No obstante, el sujeto pasivo está obligado a comunicar las variaciones que se produzcan en ellas condiciones y requisitos de esta reducción y que, en todo caso, surtirán efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de la reducción y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la reducción.

7.2. Tendrán una reducción del 80 % las personas que soliciten que no tengan ninguna deuda con el Ayuntamiento de Tolosa y reúnan los requisitos económicos para las prestaciones ofrecidas por el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos.

7.3. Tendrán una reducción, aquellas personas que soliciten y que la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.



TOLOSAKO
UDALA

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jeitsiera bizikidetzaren unitateko kideen dirusarreraren arabera kalkulatuko da:

Una vez cumplidos los requisitos, la rebaja del precio público se calculará en función del ingreso de los y las miembros de la unidad convivencial:

Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	15.621 €-21.280 €
1-2	%80	%60	%50	%0
3	%90	%70	%60	%25
4 edo gehiago	%95	%90	%90	%60

Atal honetako prezio publikoaren jeitsiera lortzeko, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial.

7.1., 7.2 eta 7.3 ataletako jeitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentai handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 7.1, 7.2 y 7.3, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a la solicitante

8.- TOLOSA tarifak matrikulazio epearen amaiera baino bi hilabete lehenago Tolosan erroldatuta dauden herritarrei aplikatuko zaizkie.

8.- Las tarifas TOLOSA se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosa con un mínimo de dos meses de antelación respecto a la fecha fin del período de matriculación.

Tolosaldean erroldatutako ere aplikatuko zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete kultur tailerrei dagokien eranskin honetako zerbitzu guztietan.

También se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosaldea, siempre que los correspondientes municipios también apliquen a las personas empadronadas en Tolosa las mismas tarifas que aplican a su ciudadanía en todos los servicios de este anexo correspondiente a los talleres culturales.



TOLOSAKO
UDALA

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2023eko urriaren 26an.

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

Eranskin honetako aplikazio arauak Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2023ko urriaren 26an.

Las normas de aplicación de este anexo, fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de octubre de 2023.

ALKATEA

Tolosan, 2023ko abenduaren 21ean
KONTU-HARTZAILEA

IDAZKARIA



TOLOSA
UDALA

3.1.8 EUSKALTEGIA

		PREZIO PUBLIKOA 2024
Aurrez aurreko taldeak	Clases presenciales	1,35 €/orduko
Autoikaskuntza	Autoaprendizaje	2,42 €/orduko
Jardun bikoa	Aprendizaje mixto	1,89 €/orduko
Enpresei eskainitako ikastaroak	Cursos ofrecidos a empresas	71 €/orduko 1,60 €/km

APLIKAZIO ARAUAK

1.- Udalaren esku dago tarifatua ez diren ikastaroak antolatzea eta dagozkien prezio publikoak ezartzea.

2.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan sortuko da. Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteetako kuota guztiak.

3.- ORDAINKETA EPEAK:

3.1 Ikaslea **Tolosan erroldatuta** badago matrikula eginbaino 15 egun lehenago gutxienez:

3.1.1 Ikasturte arrunta bi epetan ordainduko da:

- Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen: matrikularen % 5 (B2 arte), % 25 (C1) edo % 50 (C2) ordaindu beharko dute.
- Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentaia (2. kuota).

3.2 Ikaslea Tolosan **erroldatuta ez** badago:

3.2.1. Ikasturte arrunta bi eratarik ordaindu ahal izango da:

a) Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

b) Bi epetan:

- Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, matrikularen 2 heren eta, hala badagokio, materiala.
- Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, matrikularen azken herena.

3.2.2. Autoikaskuntzako ikastaroa bi eratarik ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: prezio publiko osoa eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.
- Hiru epetan:
 - Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, prezio publikoaren

NORMAS DE APLICACIÓN

1.- El Ayuntamiento se reserva la posibilidad de organizar cursos y de establecer los correspondientes precios públicos.

2.- La exacción se considerará devengada en el momento de formalizarse la matrícula. Será condición inexcusable para matricularse el haber satisfecho previamente todas las cuotas de cursos anteriores.

3.- PLAZOS DE ABONO:

3.1 En caso de estar **empadronado/a en Tolosa**, con una antelación mínima de 15 respecto del día de la matrícula.

3.1.1 El curso ordinario se abonará en dos plazos:

Primer plazo: antes del 15 de noviembre:

5 % de la matrícula (hasta B2), el 25 % (C1) o el 50 % (C2).

Segundo plazo: antes del 30 de junio, el

porcentaje restante (cuota 2).

3.2 En caso de **no estar empadronado/a** en Tolosa:

3.2.1. El abono del curso ordinario podrá realizarse de dos formas:

a) En un único plazo: matrícula completa y, en su caso, material, en el plazo máximo de una semana desde el inicio de las clases.

b) En dos plazos:

Primer plazo: antes del 15 de noviembre, 2 tercios de la matrícula y, en su caso, material.

Segundo plazo: antes del 15 de diciembre, último tercio de la matrícula.

3.2.2. El pago del curso de autoaprendizaje podrá realizarse de dos formas:

En un único plazo: precio público íntegro en el plazo máximo de una semana desde el inicio de las clases.

En tres plazos:

Primer plazo: antes del 15 de noviembre,



TOLOSA
UDALA

erdia.

- Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, prezio publikoaren laurdena.
- Hirugarren epea: urtarrilaren 15a baino lehen, prezio publikoaren azken laurdena.

3.3 Alkateak gehitu eta luza ditzake ordainketa egiteko epeak kasu berezietan, Euskara eta Hezkuntza Sailaren eskariz.

3.4 Gainontzeko ikastaroak epe bakarrean eta ikastaroahasi aurretik ordaindu beharko dira.

3.5 Matrikula egiterakoan ikasleek kontu korrontea eman beharko dute ordainketa helbideratzeko.

3.6 Aitzol Euskaltegian dauden HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikulen ordainketa:

3.6.1 HABEK IVAP, IRALE, JUSTIZIA, LANBIDE eta OSAKIDETZArekin hitzarmena dauka bertako langileek euskara ikas dezaten inolako gasturik izan gabe. Hitzarmen horren arabera, herri erakundeetako langileen matrikula gastuak ordaintzeaz gain, euskalduntze-prozesuan euskaltegiek asistentzia datuak bildu eta HABEra bidaltzeagatik zerbitzua ere finantzatzen da. HABEK hitzarmenpeko ikasleen matrikulak eta kudeaketa gastuak ordaintzeko lau epe ezartzen ditu:

1. ordainketa: abenduan (urritik ekainera ikastaroetan hasi diren ikasleen matrikulen %30a).

2. ordainketa: otsailean (urritik ekainera ikastaroetan izena eman duten ikasleen matrikulen %70a).

3. ordainketa: apirilean (urtarriletik ekainera ikastaroetan egon diren Segurtasun Saileko ikasleen matrikulen %100a).

4. ordainketa: urrian (udako ikastaroetan egon diren administrazioetako ikasle solteen matrikulak eta ikasturte osoaren kitapena/kudeaketa gastuak).

Ikasle guztien aukera-eskubidea bermatzeko asmoz, HABEK urtero ikastaro mota bakoitzaren prezio publikoak ezartzen ditu agindu baten bidez. Agindu horretan HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikula eta kudeaketa gastuengatik prezio publikoen tarifak zehazten dira. Udalak goian aipatutako ordainketa epeen arabera dagozkion ordainagiriak sortu behar ditu eta HABEra bidali ordainketa egin dezaten.

3.6.2 HABEko hitzarmenpeko ikasleen materiala ikasle bakoitzak ordainduko du ikasturte hasieran.

3.7. HABE eta Tolosako Aitzol Euskaltegiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, C1C1 helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, prezio publikoaren ordainketa epeak hauek dira:

- Matrikulazio epean: 20 euro (ikasleak ordainduko ditu)

la mitad del precio público.

Segundo plazo: antes del 15 de diciembre, una cuarta parte del precio público.

Tercer plazo: antes del 15 de enero, última cuarta parte del precio público.

3.3 La Alcaldía podrá, según sea el caso, prorrogar o ampliar los plazos para el abono de las tarifas, a propuesta del Área de Euskara y Educación.

3.4 En el resto de los cursos deberá abonarse en un único plazo y antes de su inicio.

3.5 Al matricularse deberán aportar el nº de la cuenta corriente a fin de domiciliar el recibo.

3.6 Pago de las matrículas del alumnado de Aitzol Euskaltegia bajo convenio de HABE:

3.6.1 HABE tiene establecido un convenio con IVAP, IRALE, JUSTIZIA, LANBIDE y OSAKIDETZA para que el personal de estas entidades aprenda euskera sin tener ningún gasto. En virtud de dicho convenio, además de sufragar los gastos de matrícula del personal de las instituciones públicas, en el proceso de euskaldunización se financia el servicio de recogida de datos asistenciales y su envío a HABE por parte de los euskaltegis. HABE establece cuatro plazos para sufragar las matrículas y gastos de gestión del alumnado que se halla bajo convenio:

1^{er} pago: en el mes de diciembre (30 % de las matrículas del alumnado que ha iniciado cursos de octubre a junio).

2^o pago: en febrero (70 % de las matrículas del alumnado inscrito en los cursos de octubre a junio).

3^{er} pago: en abril (100 % de las matrículas del alumnado del Departamento de Seguridad que han estado en los cursos de enero a junio).

4^o pago: en octubre (matrículas del alumnado suelto de administraciones que ha estado en cursos de verano y liquidación/gastos de gestión del curso completo).

Con el fin de garantizar el derecho de oportunidad opción de todo el alumnado, HABE establece anualmente, mediante una orden, los precios públicos de cada tipo de curso. En dicha orden se establecen las tarifas de los precios públicos por gastos de matrícula y gestión del alumnado bajo convenio de HABE. El Ayuntamiento debe generar los recibos correspondientes según los plazos de pago arriba mencionados y enviarlos a HABE para que proceda al pago.

3.6.2 El material del alumnado bajo convenio de HABE deberá abonarlo cada alumno/a al inicio del curso.

3.7. Como consecuencia del convenio de colaboración entre HABE y Aitzol Euskaltegia, en el proceso de subvencionar a los alumnos de entre 16-18 años con objetivo C1C1, los plazos de abono de los precios públicos son los siguientes:

- En el periodo de matriculación: 20 euros (los pagará el/la alumno/a)



TOLOSAKO
UDALA

- Gainerakoa: hitzarmenean azaltzen diren baldintzetan, beti ere ekainaren 30a baino lehen (HABEK ordainduko du)

4. Baja eskatzeko eskubidea:

Jarraian aipatzen direnei buruzko erabakia alkatea edo zinegotzi delegatuari dagokio, horretarako Euskara Teknikariak proposamena egingo du eta Kontuhartzaitzak dagokion txostena egingo du.

4.1 Nahitaezko arrazoiren* bategatik eraginda ikasleren bat baja izango balitz ikasturtean zehar, bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango du, betiere:

- Baja hartu arte %85eko asistentzia bete izan badu.
- Errendimendu egokia izan badu.

Horrelako kasuetan euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak %85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan duela.

4.2 Tolosan erroldatuta ez dauden ikasleek bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango dute baldin eta azaroaren 30 arteko bajak badira, nahitaezko arrazoiren* batek eragindako bajak badira, betiere:

- Baja hartu arte %85eko asistentzia bete izan badu.
- Errendimendu egokia izan badu.

Horrelako kasuetan euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak %85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan duela.

Nahitaezko arrazoiak*:

- Eskolara joateko ezintasuna, betiere horixe adierazten duen medikuaren egiaztagiria badago.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), betiere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

4.3 Ikasle tolosarrek matrikularen %5 (B2 arte), %25 (C1) edo %50 (C2) pagatu beharko dute ikasturte hasieran. Ordenantza fiskal hauetan agertzen diren baldintzak bete ezean falta den/zaien portzentaia kobratuko zaie ikasturte amaiera aldera edota ikastaroa utzitakoan.

5. Matrikularik ez dute pagatu beharko jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren batbetetzen dutenek:

a) LANBIDEK emandako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LAGS/SMI) ziurtagiria izatea.

- El resto: en las condiciones que aparecen en el convenio, siempre y cuando antes del 30 de junio (lo pagará HABE).

4. Derecho a solicitar la baja:

La decisión sobre los siguientes extremos corresponderá a la alcaldía o concejalía delegada, a propuesta del/de la técnico/a de Euskera e informe de Intervención.

4.1 Si por causa de fuerza mayor* alguien causara baja durante el curso, tendrá derecho a no abonar la segunda cuota, siempre que:

- haya cumplido el 85 % de asistencia hasta la baja,
- haya tenido un rendimiento adecuado.

En estos casos, se acreditará mediante informe del profesor o profesora del Euskaltegi, firmado por el director o directora del Euskaltegi, que la persona que ha causado baja ha tenido una asistencia del 85 % y un rendimiento adecuado.

4.2 El alumnado que no esté empadronado en Tolosa tendrá derecho a no abonar la segunda cuota, si se trata de bajas hasta el 30 de noviembre, motivadas por una causa mayor*, y siempre que:

- haya cumplido el 85 % de asistencia hasta la baja,
- haya tenido un rendimiento adecuado.

En estos casos, se acreditará mediante informe del profesor o profesora del Euskaltegi, firmado por el director o directora del Euskaltegi, que la persona que ha causado baja ha tenido una asistencia del 85 % y un rendimiento adecuado.

Causas de fuerza mayor*:

- Imposibilidad de asistir a clase, siempre que exista justificante médico que así lo indique.
- Situación excepcional en el ámbito laboral (traslados, despidos...), siempre que se acredite documentalmente.

4.3 El alumnado tolosarra deberá abonar el 5 % de la matrícula (hasta B2), 25 % (C1) o 50 % (C2) al inicio del curso. En caso de incumplimiento de las condiciones que figuran en estas Ordenanzas Fiscales, se les cobrará el porcentaje que falte al final del curso o al finalizar el mismo.

5. No tendrán que pagar la matrícula aquellas personas que cumplan alguno de los siguientes requisitos :

a) Disponer del certificado del salario mínimo interprofesional (SMI) emitido por Lanbide.

b) Ostentar la condición de familia numerosa en el plazo de matriculación del curso en el que se matricula o que la familia sea monoparental.



TOLOSAKO
UDALA

b) Familia ugariaren txartela eguneraturik edukitzea, matrikulatzen den ikasturtearen matrikula egiteko epealdian edo familia gurasobakar izatea.

c) Diru Sarrerak eta Gizarteratzea Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak eskuratzeko baldintza ekonomikoak betetzea. Kasu honetan, materialaren kopurua ere ez dute ordaindu beharko.

Atal honetan jasotakoaz baliatu nahi dutenek Udalean aurkeztu beharko dituzte eskatutako datu eta dokumentu guztiak eta hauek egiaztatzeko egin behar diren azterketa guztiak onartu beharko dituzte.

Datuak eta dokumentuak urteko edozein momentutan azter daitezke.

6. Prezio publikoa ondorengo portzentaian jeitsiko zaie, eskaera egiten dutenei, beti ere Tolosan erroldatuta badaude eta Udalarekin zorrik ez badute, bizikidetzaren unitatearen ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jeitsiera bizikidetzaren unitateko kideen dirusarreraren arabera kalkulatu da:

Bizikidetzaren unitateko kide kopurua	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	15.621 €-21.240 €
1-2	%80	%60	%50	%0
3	%90	%70	%60	%25
4 edo gehiago	%95	%90	%90	%60

Ataleko prezio publikoaren jeitsiera lortzeko, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

5. eta 6. ataletako jeitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentaia handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

Hala ere, hurrengo ikasturteetan baldintza beretan matrikulatu ahal izateko, hau da, 5. eta 6. puntuetako prezio jeitsierak aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

*Aurrez aurreko ikasleak: ikastaroa amaitu eta ikasturtearen gutxienez % 85eko asistentzia izatea. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea. Eskolara joan ez izana zuzitzeko, gaixotasun-ziurtagiriak aurkeztea.

c) Cumplir los requisitos económicos para acceder a los ingresos y a las prestaciones económicas del Sistema Vasco de Garantía de Inclusión Social. En este caso, tampoco tendrán que pagar el material.

Quienes deseen valerse de lo recogido en este apartado deberán presentar en el Ayuntamiento todos los datos y documentos requeridos y aceptar todas las inspecciones necesarias para su comprobación.

Los datos y documentos pueden ser analizados en cualquier momento del año.

6. El precio público se reducirá en los siguientes porcentajes a los/las solicitantes, siempre que estén empadronados/as en Tolosa, no tengan deudas con el Ayuntamiento y la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.

Una vez cumplidos los requisitos, la rebaja del precio público se calculará en función del ingreso de los y las miembros de la unidad convivencial:

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial.

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 5 y 6, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a la solicitante.

No obstante, para poder matricularse en los cursos siguientes en las mismas condiciones, es decir, para aplicar los descuentos de precios de los puntos 5 y 6, deberán cumplir los siguientes requisitos:

* Alumnado presencial: asistencia mínima del 85 % al finalizar el curso. Realizar todos los exámenes correspondientes a cada nivel y aportar documento favorable sobre el rendimiento, firmado por el profesor o la profesora. Presentar certificados de enfermedad que justifiquen la inasistencia a clase.



TOLOSAKO
UDALA

* Autoikaskuntzako ikasleak: ikastaroa amaitu eta aurrez aurreko zein autoikaskuntzak dituenataletan % 85eko parte hartzea izatea. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea. Ikastaroa bukatu ez izana zuzentzeko, gaixotasun-ziurtagiriak aurkeztea.

Baldintza horiek euskaltegiko zuzendariak sinatutako agirien bidez zuritu beharko ditu.

7. Taulan azaltzen diren ikastaroak eskainiko dira, beti ere, alde zuzenetik HABEK onartutakoak badira.

8.- AISA etorkinak euskara hurbiltzeko harrera ikastaroen barruko ikasleek ez dute prezio publikoa ordainduko.

AZKEN XEDAPENA

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2023eko apirilaren 27an, 2023-2024 ikasturtean sartu ziren indarrean eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskin honetako aplikazio arauak Osoko Bilkuraren behin betiko onespina jaso zuten 2023ko apirilaren 27an, 2023-2024 ikasturteaz geroztik indarrean daude eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo balioz gabetzea erabaki arte.

* Alumnado de autoaprendizaje: finalizar el curso y participar en el 85 % de las sesiones presenciales y de autoaprendizaje. Realizar todos los exámenes correspondientes a cada nivel y aportar documento favorable sobre el rendimiento, firmado por el profesor o la profesora. Presentar certificados de enfermedad que justifiquen la inasistencia a clase.

El cumplimiento de estos requisitos se justificará mediante certificado de la dirección del Euskaltegi.

7.- Se ofrecerán los cursos señalados en la tabla siempre y cuando hayan sido aprobados previamente por HABE.

8.- El alumnado de los cursos de acogida para el acercamiento del euskera a inmigrantes AISA no abonará el precio público.

DISPOSICIÓN FINAL

Las tarifas de este Anexo fueron aprobadas por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de abril de 2023 y entraron en vigor en el curso 2023-2024 continuando aplicándose en tanto no acuerde su modificación o derogación.

Las normas de aplicación de este anexo, fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de abril de 2023, entraron en vigor en el curso 2023-2024 y continuarán en vigor, en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

Tolosan, 2023ko abenduaren 30ean

ALKATEA

KONTU-HARTZAILEA

IDAZKARIA



TOLOSA
UDALA

3.1.9 ERANSKINA. ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

1.- Aplikazio esparrua

Arautegi hau etxez etxe laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa, izan beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

2.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

Prezio publikoa ordaintzera behartuta daude:

Etxez etxe laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.

a) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.

b) Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkariak pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta ordezkariak pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.

c) Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularak ezin badio aurre egin legokiokkeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Prezio publikoa

Gehieneko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei: 15,00 euro/orduko.

4.- Ekarpenen koadroa

ANEXO 3.1.9. SERVICIO DE ASISTENCIA DOMICILIARIA

1.- Ámbito de aplicación

La presente normativa será de aplicación al servicio de asistencia domiciliaria, ya sea en régimen de gestión directa, ya sea mediante convenio con otras instituciones públicas o mediante conciertos, convenios o contratos con otras entidades privadas.

2.- Personas obligadas al pago

Están obligadas al pago de los precios públicos:

Las personas físicas beneficiarias directas del servicio de ayuda a domicilio, salvo que concurren las circunstancias b) y c) del presente apartado 1.

a) Si las personas usuarias del servicio son menores de edad, la persona o personas que ejerce/ejercen la patria potestad, tutela o guarda sobre ellas.

b) Las personas adultas que actúen mediante representante legal o guardador/a de hecho en los términos previstos en la normativa de acceso al servicio, si bien, en este caso, el pago se realizará con cargo a la renta y patrimonio de la persona representada, teniendo en cuenta la capacidad económica de la persona representada.

c) Las personas que se hayan visto favorecidas por una o varias transmisiones patrimoniales, realizadas a título gratuito por la persona usuaria, en los cinco años inmediatamente anteriores a la solicitud de acceso al servicio, cuando la persona titular del servicio no pueda hacer frente al pago del precio público que pudiera corresponderle, de acuerdo con lo señalado en el artículo 57.6 de la Ley 12/2008, de Servicios Sociales.

3.- Precio público

El precio público máximo a aplicar a las personas usuarias será de 15,00 euros/hora.

4.- Cuadro de aportaciones

La aportación de la persona usuaria será un porcentaje del precio público máximo, porcentaje a aplicar que dependerá de su capacidad económica.



TOLOSA
UDALA

Erabiltzailearen ekarpena gehieneko prezio publikoaren portzentaje bat izango da, eta aplikatu beharreko ehuneko hori ahalmen ekonomikoaren arabera izango da.

Ahalmen ekonomikoa zerbitzuaren erregelamenduak II Eranskinean jarritako irizpideak erabiliz kalkulatu da.

Erabiltzaileak egin beharreko ekarpena honako ekarpen taula honen arabera zehaztu da:

La capacidad económica se calculará utilizando los criterios establecidos por el reglamento del servicio en el Anexo II.

La aportación a realizar por la persona usuaria se determinará de acuerdo con la siguiente tabla de aportaciones:

Capacidad económica	Precio: % del precio público máximo
≤ 75 % del SMI	1,5 %
>75-78 %	4 %
>78-81 %	8 %
>81-94 %	15 %
>94-110 %	24 %
>110-125 %	35 %
>125-140 %	48 %
>140-155 %	61 %
>155-170 %	74 %
>170-190 %	87 %
>190 % del SMI	100 %



TOLOSAKO
UDALA

5.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehieneko ondare muga hauek ezar-tzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

5.- 5.- Cómputo del patrimonio

Se establecen los siguientes límites patrimoniales máximos en función de los miembros de la unidad familiar.

En caso de que no se superen estos límites, se aplicará la tabla anterior y en caso de superarse estos límites, se abonará el 100 % del precio público.

Kide kopurua	Gehieneko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa

